15. Quienes imponen las sanciones ya saben que a los que tienen el poder político, económico y militar no les faltará de nada, y quien sufre dichas sanciones es la población. Así, pues, ¿qué crees que esperan conseguir?

Global express

Gaurkotasuna ikasgelan

Irak: azalean



DAVID CALLOW/AP

Iraken eta Nazio Batuen arteko krisiak berriro tenkatu du nazioarteko politika. Esku-hartzearen alde eta kontrako argudioak ugari eta ezberdinak dira. Gatazkaren inguruko interes anitzek ez dute argi uzten zergatik jasan behar duen Irakek eraso internazionala.

Global Expressek gatazkako protagonistei eta izan ditzaketen interesei buruzko analisia eskaintzen du: Estatu Batuak, Irak, Irakeko herritarrak eta Nazio Batuak non ari den jokalaria bakoitza bere fitxak mugitzen.

- Terrorismoaren aurkako gerra?
- "Irak, ikusmiran"
- Tritzi kontrajarriak
- Ur gutziagarria
- Iraken bizi
- Bakea kolokan
- Segurtasun Kontseilua
- Estatu Batuen zergatiak
- Segurtasuna edo petrolioa?
- Gida didaktikoa

Terrorismoaren aurkako gerra?



2001eko irailaren 11ko eraso terroristek abiarazi dute Ipar Amerikaren mende berriko balentria: terrorismoaren aurkako gerra. Estatu Batuek, Al Qaeda taldea eta, beraz, Afganistanen agintean zegoen talibanen gobernuak, atentatuen erantzule egin arren, han baitzuen basea Al Kaedak, handik gutxira, Bushen

"gaizkiaren ardatzean" kokatu zituen nazioarteko terrorismoan sartuta omen dauden beste herrialde batzuk, eta Irak lehenetsi zuen terrorismoaren aurkako borrokan. Tony Blair, Britainia Handiko presidentea, eta Espainiako José María Aznar izan dira Bushi sostengua ematen lehenak nazioartean.

"Irak, ikusmiran"



"Suntsipen handiko armen" –kimikoak, biologikoak eta nuklearrak– garapenak munduko bakeari egiten dion mehatxuan oinarritzen da Estatu Batuek eta bere aliatuek daukaten Iraken ekintza militarra burutzearen aldeko jarrera. Estatu Batuek eta Britainia Handiak, erasoaren aldeko ahots nagusiek, Irakek suntsipen handiko arma berriak fabrikatu dituela erakusten duten frogak dituztela diote, eta Saddam Husseinek, herria berri armatzeko, "Petrolioia elikagai truke" programako diru-sarreraren parte batez baliatu dela seguru omen dira. Diru hori Irakeko herritarrek elikagaiak, jantziak eta botikak eskuratzeko zen, 1991n Kuwait inbaditzeagatik Nazio Batuek ezarritako enbarguaren ondorioz gehien kaltetutakoak, ezbaierik gabe.

Nazio Batuen 1991ko apirilko 687 ebazpenak, Bagdadeko erregimenaren desarmea ikuskatu beharra ezarri zuen, arma

biologikoak, kimikoak eta nuklearrak egiteagatik salatzen baitzuten. Horretarako, Nazio Batuek Iraken Desarmeko Batzorde Berezia (UNSCOM) sortu zuten, Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziarekin batera lan egin zuena Hussein erregimenaren desarme prozesua ikuskatzen. 1998an, Estatu Batuen eta Iraken arteko tirabira berriek, NBEko ikuskatzaile batzuk CIArentzat lanean ari omen zirela eta, beraien abandonua ekarri zuen eta Basamortuko Azeria deritzon operazioa abiarazi zuten. Geroztik, ez dirudi Irakek armak fabrikatzen dituela erakusteko froga formalik dagoenik. Aldiz, Ipar Amerikako Scott Ritter NBEko ikuskatzaile ohiak "NBEk zazpi urtez egindako ikuskapenetan, Irakek bere ahalmeneko % 90-95 desarmatu dela ziurtatu ahal izan da eta suntsipen handiko armak ekoizteko erabilitako lantegi guztiak desegin dituela" ageri zuen jendaurrean.

Iritzi kontrajarriak



Nazioarteak eta EEBBek behartuta, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak ezarritako ebazpena onartu du Irakek: nazioarteko ikuskatzaileak baldintzarik gabe bertara itzul daitezela suntsipen handiko armak garatu eta fabrikatzeko programak dituzten edo ez ikertu eta egiaztatzeraz.

Irakeko erregimenak itxuraz emandako erraztasunek areagotu egin dituzte nazioen arteko ezberdintasunak. Arabiar herrialdeak, Alemania eta Frantzia ikuskatzaileen txostenen zain gelditu dira Nazio Batuen sostenguekin Iraken aurkako edozein ekintza planteatu baino lehen. Estatu Batuen eta Britainia Handiaren ustez, ordea, gatazka amaitzeko Irakeko erregimena aldatzea beste irtenbide errealik ez dago, Saddam Hussein


diktadorea boteretik behin betiko kenduta. Helburu hori lortu nahian bultzatu dute Irakeko erresistentzia herrialde barrenean eta kanpoan, nazioarteko esku-hartzeak Irakeko gobernu aldaketa bultzatuz. Afganistanen New Yorkeko dorre bikien erasoaren ondoren erabilitako estrategia bertsua litzateke. Baina, Afganistanen bezala, ezin berma daiteke diktadorea bota ondoren benetako prozesu demokratikoa bultzatu ahal izango denik, erregimenaren kontrako indarrak oso ahulak baitira eta elkarren etsai. Iraken benetako erregimen demokratikoak arrakasta izateko, % 90 herritar kaltetzen duen pobrezia desagertu beharko litzateke eta gizarte zibilaren parte-hartzea indartu, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak defendatzeko berme osoa izan dezan.

Lur gutziagarria

Lur gutziagarria



Irakeko lurraldeko ondasun natural eta kulturalak izan dira bere loria handienen jatorria, baita bere hondamendi handienena ere. Bi mila urtean zehar, Tigris eta Eufrates ibaien arteko lur honetan sortu zen Mesopotamiako zibilizazioa eta Babiloniako zein Pertsiko inperioen parte izan zen. Eskualde honetako jendeak asmatu omen zuen idazkera, gurpila edo algebra garai distiratsu hartan. Mongolen egin zituzten lehen harrapaketak. Gero, turkiar inperioak agindu zuen 1900 arte. Urte horretan Ingalaterrako tropek menderatu zuten, herrialdea haien kolonia bihurtuz. 1932an, Irakek independentzia lortu zuen eta eskualdeko nazioarteko politikako lider bilakatu zen. Nazio Batuetako lehen kideetako izan zen eta Herrialde Arabiarren Ligako sortzaile. 1979an, Saddam Husseinek boterea eskuratu zuenean, piztu zen ondoko Iranekin zortzi urte luzatu zen gatazka armatua. Garai hartan, Irak nazioarteko potentzien aliatua zen Irango integrismoaren aurkako borrokan eta Frantzia eta Errusiaren laguntza jaso zuen, baita Estatu Batuena ere. Lagun horiek arriskutsu bihurtu ziren Irakek petrolioz betetako



herrialde txikia, Kuwait, inbaditu zuenean. "Basamortuko ekaitza" izan zen orduan. Ekaitz horrek, gaur egun, Irakeko populazio zibila zigortzen darrai.

Iraken bizi

Iraken bizi



Argi dagoena zera da, hamar urte baino gehiago direna Irakek Kuwait inbaditu zuela, -Estatu Batuekin eta Nazio Batuekin zituen harreman adiskidetsuak hautsi zirelarik-, eta Iraken bizi diren gizonak, emakumeak eta haurrak izan direna kaltetu bakarrak, egunez egun jasaten baitituzte Saddam Hussein presidentearen errepresioa eta NBEK Kuwait inbaditzeagatik agindutako enbargua. Zazpi hilabete iraun zuten inbasioak eta gerrak. Zehapenek bere horretan darraite gaur egun. NBEk enbargu ekonomikoa ezarri zioten Iraki: edozein salgai esportatu edo inportatzeko debekua, premiazkoenak barne. Zehapen horien helburua Husseinen erregimena arma kimiko, biologiko eta nuklear guztiak desegitera behartzea zen. Denbora honetan, bost urtetik beherako 900.000 haur hil da zehapenen ondorioz, eta Irakek du munduko haur-heriotza tasa altuenetakoa, 1991 baino lehen, Ekialde Hurbileko osasun sistema aurreratuenetakoa zuelarik. 57 urteko bizi itxaropena du. Herritarren bostenak ez du zer jan, familiek txandaka jan behar izaten dute, hain da eskasa janaria. Jostailuak edo hezkuntza materiala iraganeko kontuak dira. Gainera, Iraken nazioarteko isolamenduak erregimenaren kontrako barne oposizioaren ahalegin guztiak deuseztatu egin ditu. Erregimen horrek leialtza ez zituen populazioen errepresioa gogortu du. Hala gertatu da herri kurduarekin, iparraldean bizi ziren 90.000 kurdu baino gehiagok alde egin behar izan zutelarik. Zehapenek aurrera darraite. Eta, gainera, Irakeko hiri eta herriek Ipar Amerikako eta Ingalaterrako hegazkinen bonbardaketak jasan izan behar dituzte behin eta berriro, populazioa defendatzeko Husseinen

instalazio militarrek eraso nahi izan dituztenean; eskolek, ospitaleek edota botika fabrikek ere jasan behar izan dituzte bonbardaketak.

PETROLIOA elikagai truke

Zigorrek Irakeko populazio zibilarengan zuten eragin hondatzailea arintzeko, Nazio Batuek eta Irakeko Gobernuak "Petrolio elikagai truke" izeneko programa diseinatu zuten botikak eta janaria erosi ahal izateko, Irakek petrolio kopuru mugatuak esporta zitzaizkion. Baina programa hori bertan behera utzi da, herritarren egoera zerbait hobetu baino lehen. Estatu Batuek eta nazioarteko komunitateak Saddamen erregimena salatu dute, petrolioaren salmentaren etekinak arma programetan erabiltzen omen dituela eta.

"Zer axola zaie alargunei, umezurtzei, ezinduei... sarraskia totalitarismoaren izenean egin edo askatasunaren eta demokraziaren izenean."

MAHATMA GHANDI

Bakea kolokan



Irailaren 11koa gertatu eta Bushen "gaizkiaren ardatzaren" eta nazioarteko terrorismoaren kontrako borroka erabatekoa iragarri ondoren, behin eta berriro salatu da jendaurrean Estatu Batuek beren aldetik esku-hartzeko arriskua, beste herrialdeei kontsultatu gabe. Batez ere, Hegoaldeko herrialdeek, fidagarriago baitituzte alde anitzeko topaguneak, hala nola Nazio Batuak. Kritika horiek EEBBen hegemoniaren beldur direla erakusten dute eta hegemonia horrek Nazio Batuen zereginarekiko nagusitasunaren ondorio. Orain hamar urte baino gehiago, Sobietar Batasuna desegin zenean, Gerra Hotzerako arma fabrikazioan erabiltzen zen diruaren parte handi bat Hego aldeko herrialdeak garatzeko erabiliko zela uste izan zen. "Bakearen mozkinak" zeritzona. Baina itxurako bake hura, Estatu Batuak, superpotentzia bakarra izaki, "munduko poliziaren" zeregina bete beharrean bere interesen arabera, bere kasa, Segurtasun Kontseiluaren eta Nazio Batuen sostenguekin, edo gabe jokatzeko arriskuaren itzalpean jai zen.

Azkenik, iragan azaroaren 8an, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak aho batez onartu zuen Estatu Batuek aurkeztutako 1441 ebazpena. Nazioarteko komunitateak Iraki NBEko

ikuskatzaileak baldintzarik gabe onartzeko ematen dion azken aukera da, Iraken desarmaia ziurtatzeko. Ebazpenaren azken lerroaldeak "Kontseiluak behin eta berriro ohartarazi diola Iraki ondorio larriak izanen dituela bere betebeharrak etengabe urratuz gero" dakar gogora. Ebazpen hori dela medio, Estatu Batuek Irak behartzeko, mehatxatzeko eta, behar izanez gero, ekintzara pasatzeko sostengua lortu dute. Bestalde, momentuz, Segurtasun Kontseiluak beste gerra bat galarazten ari da, Nazio Batuen Biltzar zein Kontseiluko gehiengorik ez baitu.

Irakeko krisi berri honek agerian utzi du nazioarteko komunitateak Estatu Batuen kanpo politikan konfiantza falta duela. Basamortuko Ekaitza delako operazioan, 28 herrialdeko koalizio handiak -13 herrialde arabiar eta musulman barne- eman zien sostengua Estatu Batuei. 1998an, Nazio Batuetako ikuskatzaileen laneko krisiak Basamortuko Azerialdeko operazioa izan zuen ondorio, non EEBBek eta Britainia Handiak Irakeko gune estrategiko batzuk eraso baitzituzten NBERen sostengurik gabe. Orduan, EEBBek 20 herrialderen sostengua izan zuten, Hegoaldekoak bi baino ez zirelarik. Horietako bakar bat ere ez dago momentu honetan gatazka berri honen alde.

Segurtasun Kontseilua



Nazio Batuetan erabakitze eta ekiteko ahalmen handieneko organismoa dugu Segurtasun Kontseilua. Bost kide iraunkor ditu edozein ebazpen debekatzeko eskubidedun: Estatu Batuak, Ingalaterra, Frantzia, Txina eta Errusia, Bigarren Mundu Gerraren amaierak utzitako ondorio gisa. Beste hamar herrialde ez-iraunkor ere badu, txandaka berrituak. Irakekin duen gatazkan, oraingoz kide bakar baten sostengua dute Estatu Batuek: Britainia Handia. Beste hiruren artean -Txina, Frantzia eta Errusia- bada zalantzan jartzen duenik eta bada erabat kontra dagoenik. Segurtasun Kontseilutik kanpo, Alemaniak (2003ko

urtarrilaz geroztik Segurtasun Kontseiluko aldi baterako kide) inolaz ere ez duela Iraken aurkako gerra bultzatuko argi utzi du. Indiak bere kezka agertu du, eta sutan dira arabiarren artean. Saudi Arabiak, Iraken aurkako lehen gerran funtsezko laguntza eskaini zuena, oraingoz ez duela ezelako laguntzarik emanen esan du, NBERengandik zigortzeko mehatxua jaso arren. Izan ere, Irakeko eraso antolatzen hasi aurretik, nazioarteko komunitateak arabiarren eta israeldarren arteko gatazka konpondu beharko lukeela defendatzen dute herrialde arabiarrek.

ESPAINIA gatazkan

José María Aznarren gobernuak izan da George Bushen Iraki buruzko politikaren aldeko baldintzarik gabeko sostengua adierazten lehenetakoa. Behin baino gehiagotan, agertu da Espainiako Gobernuak Iraken aurkako badaezpadako erasoaren alde eta Espainiako Armada eskaini izan die laguntzeko. Jarrera horrek Fernando Valderrama, Bagdaden Espainiako negozioen arduradunak kargua uztea ekarri zuen, bere ustez "nazioarteko legeek ez dutelako badaezpadako eraso babesten eta Gobernuak legeok bete egin behar ditu, Konstituzioak esan legez. Guk Estatu Batuen kide izatea erabaki dugu, eta orain badakigu zer

esan nahi duen".

Datorren urtarrilean Espainia NBEko Segurtasun Kontseiluko aldi baterako kide izanen da. Laugarren aldiz izanen du erantzukizun hori Espainiak, Iraki erasotzeko iparramerikarren erabakia dela oso une, Europar Batasunak Washingtonetik duen jarrera bikoitza eta zalantzagarrria dela, berezian Estatu Batuek, erasotzekotan, 2003aren hasieran erasoko dutela iragarri zuten. Hain zuzen, Espainia Kontseiluaren erabakietan parte hartzen hasten denean.

Estatu Batuen zergatiak

Estatu Batuen zergatiak



Mende hasieratik, Estatu Batuetako kanpo politikak "prebentzioko ekintza" delako kontzeptua du oinarri. Bushen helburua Estatu Batuen eta mundu osoaren segurtasuna bermatzea da, nagusitasun militarrean eta badaezpadako gerretan oinarrituta, lasaitasun eta baretasunaren orde. "Gaizkiaren ardatzeko" herrialderen batek Ipar Ameriketako herritarrak erasotzeko edo talde terroristei erasotzen laguntzeko arriskuari aurre egiteko modu bakarra aurreratzea da eta erasoa jotzen lehena izatea, nazioarteko talde terroristen laguntzan jardun dezakeen edozein egitura material nahiz giza egituraketa deuseztatzeko.

Dena dela, Bush Iraken kontrako gerra egiteko eta Husseinen Gobernuak izan ditzakeen suntsipen handiko arma guztiak desegiteko prestatzen ari den bitartean, iparramerikarren kanpo politika arma hilgarri horiek debekatu edo deuseztatu gogo dituzten nazioarteko itun eta akordio guztien manipulazioan edo gaitzespenean oinarritu izan da. Beste herrialdeei betearazi nahi dizkieten desarmarako arauak ukatzean, akordio eta itunetan oinarritutako nazioarteko segurtasuna galarazten ari dira; hain zuzen, epe luzera munduko herritar guztiei segurtasuna benetan eskaini diezaiekeen bide bakarra.

Segurtasuna edo petrolioa?

Segurtasuna edo petrolioa?



1972 arte, EEBBek beren lurrean ekoizten zuten kontsumorako behar zuten % 70 hidrokarburo. Gaur egun, % 46 besterik ez dute ekoizten. Orain, petrolioaren nazioarteko merkatuaren menpe daude, Petrolio Esportatzaile Herrien Erakundeak agintzen du, OPEPek alegia, George Bushen "gaizkiaren ardatzeko" diren Irak eta Iranek osatua, besteak beste. Izan ere, Irakek munduko bigarren petrolio erreserba du lur azpian. Irakeko lur azpiko petrolioa, eta Irangoa ere bai, kontrolatzen dituenak, petrolio iturri nagusien kontrola izanen du bere esku. Eskualdeko interes ekonomikoa da, gero eta argiago, Estatu Batuen arrazoi nagusietako bat –arrazoi nagusia ez bada– Iraken esku-hartzeko. Gaur egun, zuzenean edo bestela, Afganistan eta Pakistan ditu kontrolpean. Aurrena Irak kontrolatuz eta Iran, gero, Estatu Batuak erreserba nagusien jabe eginen lirateke eta OPEPek petrolioaren ekoizpenari eta prezioei buruz duen kontrola hautsiko lukete; gainera, gizarte iparramerikarrak datozen 50 urterako beharko duen petrolio guztia segurtatuko lukete.

Nazioarteko topaguneetan salatu izan da Iraki eraso eta Saddamen erregimena kentzeko Estatu Batuen bigarren arrazoi

hori, Europako zenbait potentzien ahotik, bereziki, hala nola Frantzia, baita herrialde arabiarrek ere. Erasorako aliatuak lortzearen, iparramerikarren diplomaziako ordezkariak pribilegioak "agindu" izan dizkiete aliatu europarrei Irakeko petrolioa ustiatzerakoan, zehapenak amaitzerako. Izan ere, Golkoko gerra amaituz geroztik petrolio konpainia askok aurre-akordioak sinatu izan dituzte petrolio-guneok ustiatzeko zein instalazioak berreraiki eta modernizatzeko. Akordio gehienak ezin izan aurrera eraman NBK ezarritako debekua dela medio. Estatu Batuetan iritzi publikoaren gehiengoak bere Gobernuak "munduko bakea bermatzeko" erasoko duela Irak zalantzan jartzen ez badu ere, ahots kritiko anitzek, George Bush presidentea eta Dick Cheney presidenteordea enpresari izana gogoratu dute, bi-biak badaezpadako gerraren doktrinaren bultzatzaile nagusiak. Bush laurogeiko hamarkadan hasi zen enpresari Texaseko petrolioa bilatzeko enpresa batean. 2000ko presidentziarako kanpainan, Bush izan zen energia alorreko industrien ekarpen ekonomiko gehien jaso zituena, 1,8 milioi dolar baino gehiago. Cheney petrolio alorreko multinazional bateko aholku-emailea zen Etxe Zurian sartu baino lehen.

"Nazio Batuek ezin badute beren eginkizuna bete, bakearen alde elkarrekin lan egiteko behar den adina irmotasunik ez badute, eta Saddam Husseinek armak uzten ez baditu, bakearen izenean, askatasunaren izenean, Estatu Batuek nazioarteko koalizioa gidatuko dute eta armak kenduko dizkiogu Saddam Husseinari."

GEORGE BUSH, ESTATU BATUETAKO PRESIDENTEA

"Bushen administrazioak Nazio Batuak desegiteko arriskuan jarriko ditu, nazioarteko sostengurik gabe Irak erasotuz gero."

NELSON MANDELA, HEGOAFRIKAKO PRESIDENTE OHIA



“Estatu Batuetako interes nazionala dela, munduko interesa dela, ezin da edozein naziori, norbere segurtasunaren kontrako mehatxutzat har ditzakeenen aurka, badaezpadako erasoak egiteko mugagabeko eskubidea eman dezakeen printzipiorik garatu”.

(HENRY KISSINGER, EEBetako KANPO ARAZOETARAKO MINISTRO OHIA)

Nazioarteko politikan duten erabateko nagusitasunak bihurtu ditu Estatu Batuak, munduko herritar guztien interesen zaindari, aita babesle, baldin eta interesok herritar eta enpresa iparramerikarren interesekin eta segurtasunarekin bat badatoz. Nazioarteko talde terroristen aurkako jazarpenak eta bereizkuntza gabeko erasoek ez dute, orain arte, munduko segurtasuna eta egonkortasuna bermatzeko ezelako emaitza argirik izan. Ipar Amerikako herritarrena ere ez.

“NBEko Segurtasun Kontseilua ez da demokrazia ikasteko toki egokia, bost kide iraunkorrek osatzen baitute NBEko aristokrazia.”

(INOCENCIO ARIAS, NBEko ESPAINIAR MISIO BURUA. ABC, 2002-09-28)

Segurtasun Kontseiluaren egitura Bigarren Mundu Gerraren ondorioa da. Herrialde irabazleek, irabazleetako inork besteak ezin menderatzeko nazioarteko ordena ezarri zuten. Horregatik erabaki zuten Nazio Batuetako organo gorenean bost herrialde izan daitezela beto eskubidearen jabe: Estatu Batuak, Britainia Handia, Frantzia, Errusia eta Txina. Eta guztiz zail izango dute NBEko beste 185 kideek bat egin eta orain dela 60 urte bukatutako mundu gerraren ondorengo pribilegioa kentzea.

“NBEk legea urratu eta Irakeko herria zigortu du. Denok gara giza eskubideen zapalkuntzaren erantzule. Iraken gertatzen ari denari genozidio deritzo.”

(DENIS HALLIDAY, NBEren IRAKERako GIZA LAGUNTZA PROGRAMAKO KOORDINATZAILE OHIA)

Nazio Batuek Iraki ezarritako hamar urte baino gehiagoko zehapenek munduko herri zigortu eta zapalduenetakoa bihurtu dute Irakeko herria. Zehapenen aldeko izan da nazioarteko komunitateko gehiengoak, Irakeko herriaren goseak eta eritasunak diktadorea kolokan jarriko zutelakoan. Baina ez da horrela izan. Husseinek biktimismoa eta herriaren drama bere burua Irakeko herriaren ongizatearen defendatzaile sendo agertzeko darabiltza, mendebaldeko potentzien zehapen eta erasoen aurrean.

Munduaren morrontza onartzea daukagu edo planteatzea, herritar kritiko bezala, botere honek ez dituela demokrazia eta askatasunak errespetatzen.”

(IGNACIO RAMONET, LE MONDE DIPLOMATIQUE-KO ZUZENDARIA. LA VANGUARDIA, 2002-09-29)

Estatu Batuek nazioarteko politikan ezartzen ari diren gerrarako joerari aurre egiteko, beharrezkoa da mendebaldeko potentzia handienetako herritarrek beren gobernuei Nazio Batuetako kide guztiek nazioarteko akordioak berretsi eta betetzean oinarritutako nazioarteko ekimena eskatzea. Orobat, bakearen kultura eraikitzea, munduko herritar guztien giza eskubideak, ekonomikoak eta sozialak berma daitezten.

EZ gure izenean

“Not in our name”. Ez gure izenean. Lelo hori du bere Gobernuak munduko beste edozein herrialdetako herritarren aurka gerra eta zehapenik bultzatzerik nahi ez duen Ipar Amerikako hamaika artista eta intelektualek. Haietaz gain, milaka herritar atara da kalera Estatu Batuetako hirietan “Gerrari ez” esateko. Azaroan, Europako Foro Sozialak Florentzian egindako bilkuran milioi bat lagunek emandako “ezezkoari” gehitu zaizkio. Espainian, Inperioen aurkako Intelektualen Aliantzak honakoa adierazi du: “Gerra ez da saihestezina, haren bultzatzaile eta onuradunek sinestarazi nahi diguten bezala. Gerra politika eta arrazoiaren porrota da, harrapatzen dituen herri guztien porrota”. Besteak beste, sinatzaile hauek bildu ditu: José Saramago, Pilar Bardem, Carlos Taibo, José Sacristan eta José Luis Sampedro.

Gida didaktikoa

Gida didaktikoa

Proposamen didaktikoa bigarren hezkuntzako ikasleentzat da. Gizarte arloan, etikan, tutoretzan, e.a. lantzeko balio du eta gaien interesatutako edozein irakaslerentzat. Edozein gatazka armatutako faktore eta eragileak zeintzuk diren ezagutu eta bereiztea da helburua, zenbait hedabidek egin ohi diguten sinplifikazio manikeoa baztertuz.

EGILEA: FERRAN POLO

1. ariketa:

Irudiak aztertzea

Helburua: irudiek sortutako sentimenduak agertzea eta gatazka armatuak gehien pairatzen dituen populazio zibila dela ikustea.

Orientabidea: ona litzateke errefuxiatu izatearen gogortasunari buruz (dena utzi beharra) gogoeta egitea eta ohartzea gerra aparatuen irudi erakargarriek suntsipena, sufrimendua eta heriotza besterik ez dutela gordetzen. Horiexek dira «nahigabeko kalte» deritzenak, eufemismo lotsagarria. Erabakia beren esku dutenek herritarren ahotsa entzuz beharko luketela gogorarazten digu azken argazkiak.

2. ariketa:

Herentzia historikoa

Helburua: Irak, kolonizazioaren ondorioz sortutako muga artifizialeko herrialdea dela jakitea, muga horiek nazionalitateen mugekin bat ez etortzeak barne arazoa dakarzkiorarik.

Orientabidea: gaur egungo Irakeko mapa eta hainbat hitzarmen eta itun aztertzea lagungarri izan daiteke herri kurduaren drama ulertzeko. Irak, Turkia, Siria eta Iranen sakabanatuta dagoen herria dugu; beraz, arazoa eskualde osokoa da, ez Iraken bakarrik. Bada mugak beste modu batez antolatze proiekturik, petrolioaren arazoa, alde batetik, eta Palestinarena, bestetik, konpontzeko. Aipatu behar da petrolio erreserba nagusiak xikiak (Iranen bezala) gehiengoaren hegoaldean daudela, eta iparraldean, non kurduak baitira gehiengoaren (1913tik badakite hor petrolio dagoela). Dena dela, populazio gehiena sunniak da. Agintari militar gehienak sunniak dira eta, lurraldearen batasunari eusteko, beste bi herriak zapaltzeko arazorik ez daukate orain haien salatzaile dituztenen laguntzaz, duela gutxi arte.

3. ariketa:

Petrolioaren historia geologikoa utzitako herentzia

Helburuak: petrolioaren gure bizimoduan duen garrantzia eta haren kontrolak besteak menperatzeko ematen duen aukeraz gogoeta egin. Petrolioaren bestelako energia iturrien beharraz ohartzea.

Orientabidea: mapa geostrategikoa aztertzean, gogoan hartu petrolioaren ateratzea bezain garrantzitsua direla haren garraioa eta prozesamendua (ikus Afganistani buruzko Global Express). Petrologiuneen kontrola ez da bilatzen den gauza bakarra, petrolioaren eramateko oleodukto eta gasbideen kontrola baita ere (Turkiako hegoaldera doana egiten

hasiak dira). Petrolioaren bestelako energiei dagokionez, nahikoa ikertzen ote den galdetu beharko genuke eta, horrela ez bada, zergatik ez den egiten (hidrogenoan oinarritutako energiei buruz, batez ere).

4. ariketa

Egunkarietako kontraesanak: ikerlana

Helburua: masa hedabideen irakurketa kritikoa egiten ikastea.

Orientabidea: talde osoak egin beharko luke testuaren irakurketa ulergarria. Aipatzekoak dira 2. albistearen eta 7., 8. eta 9. albistearen arteko kontraesanak. 1. albisteari dagokionez, denok genekiena baieztatuz egin da, Pentagonoak Kongresuan justifikatu behar izan baitu desinformazioak herrialde barrenean eraginik ez duela.

Estatu Batuen eta Britainia Handiaren benetako zergatiak estaltzera dator 2. albistea.

3. albisteak berriro Nazio Batuen Segurtasun Kontseilura eramaten gaitu. Frantzia, Txina eta Errusia Estatu Batuen nahien aurka daudela kontatzen digu. Alde batetik, herrialde horiek kontrol geostrategikoa zati bat galduko luketelako, eta bestetik, Errusiako Lukoil partzuergoak, Txinako Petrolio Konpainia Nazionalak eta TotalFinalElf frantsesak Irakeko petrolioaren ateratzeko kontratuak dituztelako enbargoaren altxatzen denerako, Ipar Amerikako eta Ingalaterrako petrolio konpainiak kanpoan geratu direlarik. Hori ulertzen badugu, aiseago konpreni ahal izango dugu 4. albistea. 5. eta 10. albisteak eraso eta enbargoaren justifikatu nahian dabilta. 6. albisteak etxeko trapu zikinak atera ditu Estatu Batuetan bertan (hauteskunde partzialak baino aste batzuk lehenago agertu zen albiste hau). Ezin dugu ahanzi Estatu Batuetako gaur egungo agintariak petrolioaren lobby-koak direla.

5. ariketa

Ez prezio honetan

Helburua: Irakeko herria dela petrolioaren kontrolaren gaineko gatazka honen ondorioak jasaten dituen ulertzea, hamar urte baino gehiago daramala enbargoaren genozida sufritzen.

Orientabidea: talde lana ikasgelan informazioa aztertzeko. Oinarriko giza eskubideen artean sartu behar ditugu osasunerako eskubidea, behar bezala elikatze eskubidea eta hezkuntza eskuratzekoak. Bi komikiaren gaineko iruzkina ikaste bakoitza ebaluatzeko baliagarri izango dugu.

Gehiago jakiteko... web orrialdeak:

Gaztelaniaz

www.unesco.org/courier/2000_07

www.analisisinternacional.com/analisis/indexanalysis.html

www.unicef.org/iraq/sit-sou-cen.html

www.nodo50.org/csca

www.reliefweb.int/w/map.nsf/Home%3fOpenForm



**www.IntermonOxfam.org/educacion
konektatu eta dohainik deskargatu!**

Descubre Global Express

Tus alumnos y alumnas podrán entender la realidad que va más allá de los medios de comunicación.

En Global Express encontrarás propuestas didácticas sobre temas de actualidad (Argentina, Afganistán, Irak, la Cumbre de la Tierra...)

Global express **Intermón Oxfam**

---PROYECTOS DE DESARROLLO ---EMERGENCIAS ---COMUNICACIÓN ---MOVILIZACIÓN SOCIAL

Global Express ikasleek hedabideek diotenari buruz galdetzeko da. Errealitatea aztertzeko ikuspegi kritikoa bultzatu nahi du, munduaren egoera eta, batez ere, garapen bideko munduaren egoera ulertzeko gauza izan daitezen.

Global Express honako hauen ekimena da: Development Education Project (Erresuma Batua), Panos Institute (Erresuma Batua), Curriculum Development Unit (Eire), Centrum voor Mondiaal Onderwijs (Holanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) eta Intermón Oxfam (Espainia).



Global express

Gaurkotasuna ikasgelan

Irak: azalean



1991EKO GOLKOKO GERRAKO ERREFUXIATUAK



NAHIGABEKO KALTEAK


1. Deskribatu irudi hauek.
2. Azaldu elkarren arteko zerikusia.
3. Zer sentitzen duzu irudi hauek ikustean?
4. Zertan ari dira?
5. Zergatik uste duzu ari direla egiten?
6. Nori ari zaizkio zuzentzen?



GERRAREN KONTRAKO MANIFESTAZIOA - DAVID CALLOW/AP


2. Herentzia historikoa

7. Alderatu bi mapak eta esan zeintzuk diren herrialde berriak.



8. Zergatik izaten dira artifizialki sortutako herrialdeetan, Afrikako askotan kasu, gerrak eta borroka armatuak?

9. Zer barne borroka uste duzue izango direla Iraken?



ITUNAK ETA HITZARMENAK

1916. Sykes-Picot ituna
Frantziak eta Britainia Handiak elkarren artean banatu zituzten Ekialde Hurbileko otomandar lurraldeak (gogora dezagun 1918an amaitu zela gerra).

1920. San Remoko Konferentzia
Britainia Handiak gaur egungo Irakeko ekialdeko agintea lortu zuen (Basora-Bagdad-Kirkut-Mosul), eta petrolioak ateratzeko eskubidea.

1925. Nazio Elkartearen Arbitrajea
Nazio Batuen aurrekariak lurralde artifiziala ezarri zuen (gaur egungo Irak). Estatu subiranoa bihurtuz Britainia Handiaren babespean. Beraz, ez zen bete kurdui emandako hitza, lurralde propioa eskuratzeko zutela agindu ondoren.


1926. Mosulgo hitzarmena
Britainia Handiak (% 52,5), Frantziak (% 21,5 eta EEBBek (% 21,5) Irak Petroleum Company-ren akzioak elkarren artean banatu zituzten.

3. Petrolioa: herentzia geologikoa



Petrolioa herrialde gehienentzako funtzionamendurako oinarritzeko energia iturri bihurtu da.

Munduko erreserba gehienak (% 65) Pertsiar Golkoaren inguruan daude. Erreserba horietatik %11 Iraken esku dago, eta aise eta merke aterataiteke. Saudi Arabiakoen ondoren dira garrantzitsuenak erreserba hauek.



LE MONDE DIPLOMATIQUE 3-00

10. Hala ematen badu ere, mapa hau ez da Risk joko. Estatu Batuek munduko 140 herrialdetan indar militarrik izan arren, zergatik uste duzu biltzen duela eskualde honetan hainbeste indar?



11. Pentsa ezazu, zer edo zer dela eta, bat-batean, petrolio ateratzeari utziko balitzai,
- Zer gertatuko litzateke EEBBetan?
 - Zer, EBean? eta Japonian?
 - Zer gertatuko litzauguke guri? Zeri egin beharko genioke uko? Zertan aldatuko litzateke gure bizimodua?
 - Eta zuri? Zeri egin beharko zenioke uko? Zertan aldatuko litzateke zure bizimodua?

-Ipar Amerikako ekonomiak eta gizarteak 20 milioi upel behar ditu egunero oraingo mailari eusteko, eta produkzioak kontsumoaren herena baino ez du betetzen.
-Europak apenas duen petroliorik bere lurraldean, Japoniak ere ez.
-Espainiak 2000 urtean, 65.000 tona petrolio kontsumitu zituen; % 90 kanpotik ekarrita.
-EBak 1.400 milioi upel petrolio du erreserban; EEBBek 550 milioi baino ez.

Uste baikorrenen arabera, petrolio eskuratzeko arazoak 40 urte barru hasiko dira. Beste batzuek diotenez, % 90 erreserba kokatuta daude, eta laster izango dira arazoak, orain arte ustiatutako erreserbak aise eta merke atera zitezkeenak izan baitira.



12. Pentsatu, denen artean, zein diren energia arazorako irtenbideak.

4. Egunkarietako kontraesanak: ikerlana

1 Pentagonoak munduko prentsa "kutsatzeko" agentzia sortu du. Enric González, Washington

Pentagonoak prentsaren negozioan sartzea erabaki du. Irailaren 11ren ondotik isilean sortutako Eragin Estrategikoaren Bulegoak (OIE), nazioarteko komunikabideetan, Estatu Batuen interesen aldeko berriak "sartzea" du helburu, besteak beste. Berri horiek benetakoak edo faltsuak izan daitezke eta herrialde lagunetan edo etsaietan dute eragina. Estatu Batuen gerra ekintzen aldeko giro egokia sortzea beste xederik ez dute... Atzo arte ez genekien OIE delakoa zenik. Baina badu bulego bururik ere, Simon Worden abiazioko jenerala

EL PAIS 02-02-20

2 Sadamek, desarmea onartuz gero, boterean jarraitu ahal izango duela esan du Powellek. Isabel Piquer, New York

Colin Powell, Estatu idazkariak, EEBBen helburu nagusia Irak desarmatzea dela adierazi zuen atzo, eta ez Saddam Husseinen erregimena aldatzea ...

EL PAIS 02-10-21

3

Bushek gerrarako botere guztiak eskatu ditu

EEBBek Irak erasoko dutela berretsi dute, nahiz NBERen sostengurik ez izan. Eusebio Val, Washington

Estatu Batuetako presidentek, George W. Bushek, Irak erasotzeko askatasuna eskatu zion atzo Kongresuari, aldi berean, Nazio Batuei, Saddam Husseinen kontra Washingtonek nahi duen moduan jokatzeko ez badute, Estatu Batuek beren aldetik, aliatu zintzoenen laguntzarekin ekingo dutela ohartarazi die. Bushek botere guztiak eskatu ...

LA VANGUARDIA 02-09-20

4

Estatu Batuetako konpainiek kompetentzia baztertuko dute, Bushek Bagdaden erregimen laguna ezarri gero. **Irakeko petrolio gozoa. Eusebio Val, Washington** Iraki begira dauden petrolio konpainien artean Espainiako Repsol eta Italiako Agipek osatuta partzuegoa dago...

LA VANGUARDIA 02-09-16

5

I-11 gehiagorik ez izateko eraso Irak

Pentagonoko buruak "prebentzio kolpearen" teoria azaldu dio Kongresuari

Washingtonen ustez, terrorismoak suntsipen handiko armak eskuratu dituen garai honetan, I-11koak mehatxuei aurre hartu behar zaiela erakutsi zuen. Saddam Husseinen historialagatik eta duen arsenalagatik zilegi da erasotzeko ...

LA VANGUARDIA 02-09-19

6

Bushen asmakariak

Iraken aurkako gerra justifikatu nahian, presidentek txostenak eta datuak asmatu ditu. The Washington Post egunkari indartsuak, Bushek azkenaldian izandako "okerrak" azaleratu zituen atzo... Saddamek, ustez, laster arma nuklearrak erabiltzeko izango duela...

EL PAIS 02-10-23

7

Bushek EEBBetako jenerala jarri gogo du Irakeko agintean Saddam erori ondoren

1945ean Japonian erabilitako sisteman oinarrituta dago aldi baterako Gobernu eredu...

EL PAIS 02-10-12

8

Bushek Irakeko oposiziokoaren entrenatze militarra finantzatu du

5.000 irakiar disidente inguruk borrokarako entrenamendua hartuko du Pentagonoak eskaini eta ordainduta. George W. Bush presidentek hilaren hasieran sinatu zuen Saddam Husseinen aurkako borrokalariak entrenatzeko 92 milioi dolarreko zuzentaraua ...

EL PAIS 02-10-21

9

Washingtonek ez du baztertu barne kolpeak Saddam kargutik kentzea

EEBBen ekintzarekin batera izan liteke altxamendua. Barne kolpeari esker gobernu berriak ez luke hain argiro EEBBen "txotxongilo" emango...

LA VANGUARDIA 02-10-07

10

Saddam eta Bin Ladenek badutela harremanik dio Londonek

Britainiarreko txosten batek dioenez, alkaedako bi buruzagik iraken egin zuen entrenamendua.

Gobernu britainiarren txostenak indarra emango die Irak erasotzeko bushen planei, lehen aldiz ezarriko baitu saddamen eta alkaedaren arteko lotura, eta ustez arma kimiko eta biologikoak lantzen dituzten zenbait instalaziotan lanean ari direla frogatuko.

LA VANGUARDIA 02-09-16

13. Denen artean, berri horiekin egin bi multzo: bata, egiazko deritzozuen deklarazioduna; bestea, gezur itxura dutenena. Arrazoitu zuen sailkapena.

5. Ez prezio honetan

1972an, Irakek bere petrolioa nazionalizatu zuen.

1990ean, Irakeko diktadurako gobernuak Kuwait inbaditu zuen eta, ondorioz, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak enbargoa ezarri zion (inork ezin zion ezer erosi edo saldu Iraki), harik eta okupatutako lurraldea aske utzi arte.

1991ean, Irakek Kuwaitetik alde egin zuen eta errendatu egin zen (Persiar golkoko gerra). Dena dela, aurrera dirau enbargoak gaur egun ere, eta populazio zibilaren giza eskubideen zapalkuntzak ere.



Inportazio zaileko produktuak edo debekatuta direnak

Erabilera bikoitzaren aitzakiaz, hau da, armadarako, erregimenaren aldeko propagandarako edo lehergailuak prestatzeko baliagarri izan litezkeela eta, zaildu edo debekatu egin da eguneroko bizimodurako ezinbesteko diren produktuen inportazioa, hala nola lapitzak, papera, osasun arloko ekipoak, ura edangarri bihurtzeko plantak, ordezeko piezak eta botikak (bihotzeko gaixoetarako nitroglizerinako pilulak, zauriak josteko hari batzuk edo oxigenoa, adibidez), informatika ekipoak eta hedabideetakoak (transistoreak, grabagailuak), intsektizidak, kloroa, eskolako materiala, autoak, petrolioa ustiatzeko ordezeko piezak...

Enbargoaren eragina

- 5 urtetik beherako 900.000 haur inguru hil da ezarritako zigorren ondorioz. Gainera, kalte handia jasan dute zaharrek, eri kronikoez eta emakume haurdunek. Irakeko % 8 biztanle hil da enbargoaren ondorioz (1.500.000 lagun baino gehiago). Bizi esperantzak 57 urtetara egin du behera.
- 1989an, 2.800 dolarrekoa zen errenta per capita. 1999an, «Petrolioaren elikagaien truke» izeneko programak 252 dolar besterik ez zuen eman biztanle bakoitzeko. % 70 biztanle pobretasun mugaren azpitik bizi dira. 1989an, Irakeko dinar bat adina ziren 3 dolar. 2002an, 1.900 dinar behar dira dolar bat izateko.
- Gerra aurretik, eguneko 3.500 kaloria zegoen biztanle bakoitzari. Gaur egun, ez da 1.200era iristen (behar diren erdiak, MOEren arabera). Enbargoaren aurretik, Irakek kontsumitzen zuen % 70 elikagai inportatuak ziren. % 68 haur irakiarrek nutrizio eskasia jasan behar du, maila ezberdinetan.
- Gerra aurretik, % 92 biztanlek zuen edateko ura. Gaur egun, % 44k baino ez; ondorioz, ugaritu egin dira eritasun infekziosoak, kolera, esate baterako. Debekatua dute kloroa inportatzea.
- 1989an, % 93 biztanlerentzat zen osasun publikoa doakoa. % 90 haurrentzat txertoa. Irak botika ekoizle eta esportatzailea zen. Gaur egun, % 39 gaixok baino ez du behar duen tratamendua. 30.000 ohetatik, erdiak inguru daude erabiltzeko moduan, ekipoak eta botikak falta direlako.
- Uranio pobretuko lehegailuek izugarri handitu dituzte leuzemia kasuak eta sortzetiko malformazioak irakiarren artean. Basoran, % 3 jaioberri jaio da formazio gaitzez.
- 1979tik, hezkuntza publikoa eta doanekoa zuten. Gaur egun, % 25 haur dago eskolatu gabe. Joaten direnatarik erdiek ez dute aulkirik, ezta mahairik ere, eta txandaka ibili behar izaten dira.

14. Irakiarren zeintzuk oinarritzko giza eskubide ari dira urratzen azkeneko hamar urte luzetan? Arrazoitu zure erantzuna.

15. Zigortzaileek badakite botere politikoa, ekonomikoa eta militarra dutenek ezer faltako ez dutena, eta herriak jasango dituela zehapenak. Beraz, zure ustez, zer da lortu nahi dutena?
